



HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

EUSKADI, ESTATUKO
TXAPELDUN SUB'18 ETA
SUB'16 KATEGORIKETAN

3. zk. 2015eko uztaila



BIKOTEA



EMAKUMEEN EUSKAL SELEKZIOAK GOL UGARI
EGIN ZIZKION ESTONIARI TALLINEN JOKATUAKO
NAZIOARTEKO LAGUNARTEKO PARTIDUAN

El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48
Donostia-San Sebastián
www.vallinagrupo.com



3	EDITORIALA
4	BATZAR NAGUSIA
5	ATHLETIC CLUB
6	SD EIBAR
7	REAL SOCIEDAD
8	D. ALAVÉS ETA REAL UNIÓN
9-11	2.A, 2.B ETA 3. MAILAKO PLAY OFF-AK
12-13	BIKOTEA GAZTE ETA KADETEEN MAILAN
14-16	OINARRI FUTBOLA
18-19	EMAKUMEEN FUTBOLA
20-21	ARETO FUTBOLA
23	FEDERAZIOEN BATZARRA

©:
**EUSKADIKO FUTBOL
 FEDERAKUNDEA
 FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL**

Erredakzio Batzordea
 Comité de Redacción
 Luis María Elustondo,
 Nerea Zalabarría, Kepa Allica,
 Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
 Cantera Deportiva S.L.
 Disenu eta Maketazioa
 Diseño y Maquetación
 Cantera Deportiva S.L.
 Argazkiak. Fotografías
 Federación Vasca de Fútbol
 y Cantera Deportiva

HAMAIIKA
 Euskadiko Futbol Federakundea
 Julian Gaiarre 48 bajo
 48004 BILBAO
 Tfnoa: 94 473 19 00
 webmaster@eff-fvf.org
 Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
 Laguntzailea

Hamaika ez da bere laguntzaileen
 iritziaz erantzule egiten
 Hamaika no se hace responsable
 de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

EUSKAL FUTBOLAREN DENBORALDI BIKAINA

Gabonetan hasi ginen hiru futbol-selekzio absolutuekin, hots, areto, emakume eta gizonezkoena, Kataluniaren aurka jokatzeko, giro bikainarekin eta zaleen erantzun apartarekin. Sub 18 eta Sub 16 kategorietako gazteak txapeldun izan dira Estatuko erkidegoetako selekzio guztien artean. Emakumeen selekzioak argi eta garbi irabazi zion Estoniari, 0-5eko emaitzarekin. Partidua Tallinen jokatu zen. Gure selekzioek Euskadiren futbol-maila handia erakutsi dute, hiru koloreak harrotasunez eta ondo eginez erakutsirik.

Klubek ere aparteko maila erakutsi dute: hiru talde ditugu emakumeen lehenengo mailan Oiartzun igo ostean eta Eibar mantenduz gizonezkoen hirurek mailari eustea espero dugu.

Bilbao Athletic taldearen igoerarekin bi talde izango ditugu 2.A mailan, Alavesekin. Eta Arenas, Gernika eta Portugaleteren igoerarekin, berriz, 9 talde izango dira 2.B mailan.

Horrek hirugarren maila nazionala eman die Getxo, Aretxabaleta eta Elorriaga taldeei, Deusto eta Ondarroa eta Gasteizko Aurrera taldeko hiru txapeldunetz gain. Zorionak guztiei egindako lanagatik eta lortutako emaitza bikainengatik.

Denok dakigu futbolak gairitu beharreko ertzak eta zailtasunak dituela, eta horretan jarraitu behar dugu lanean, baina egin dezagun etenaldi bat denboraldi bikain honetaz gozatzeko.

Aste gutxi batzuen ondoren, berriro hasi eta borrokatzeari ekingo diogu, lortutakoari eutsiko diogulakoan.

Zorionak denoi

BRILLANTE TEMPORADA DEL FÚTBOL VASCO

Comenzamos en Navidad con las tres selecciones absolutas de futbol, sala, femenino y masculino contra Catalunya con un gran ambiente y excelente respuesta de la afición. Los chicos de la Sub 18 y Sub 16 han sido campeones entre todas las selecciones autonómicas del estado. La selección femenina ganó con claridad a Estonia por 0-5. En el partido celebrado en Tallín. Nuestras selecciones han dado un gran nivel del futbol de Euskadi luciendo la tricolor con orgullo y buen hacer.

Los clubes también han mostrado un nivel excepcional, tenemos tres equipos en primera femenina con el ascenso del Oiartzun y confiamos en mantener los tres de primera en masculino con la permanencia del Eibar.

El ascenso del Bilbao Athletic hace que, junto a Alavés, tengamos dos equipos en 2ª División A. Y con los ascensos del Arenas, Gernika y Portugalete sumamos 9 equipos en 2ª División B.

Ello ha dado la tercera categoría nacional al Getxo, Aretxabaleta y Elgorriaga además de los tres campeones de grupo Deusto, Aurrera de Ondarroa y Vitoria. Zorionak a todos por el trabajo realizado y por los brillantes resultados obtenidos.

Todos sabemos que el fútbol aun tiene aristas y dificultades que resolver y en ello hemos de seguir trabajando, pero hagamos un paréntesis para disfrutar de esta espectacular temporada.

Dentro de unas pocas semanas otra vez a empezar y a luchar de nuevo, confiemos en mantener lo conseguido.

Zorionak denoi

4 #BATZAR NAGUSIA



Hainbat konpromisario



EFFko lehendakaria



Estatuko Txapelketetako Kopak



Pedro Solaun, Nerea Zalabarria, Juan Luis Larrea, Luis Mari Elustondo, Kepa Allica eta Xabi Irusta Batzarrean

BATZAR NAGUSIAK 2015/16 DENBORALDIKO OINARRIAK EZARRI DITU

Euskal futbolak igoera eta tituluekin bizi duen une bikaina, Donostian izan zen Euskal Batzar Nagusiaren ardatz nagusi.

Fran Rodríguez

Donostiako Aquariuma izan zen oraingo honetan Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusiaren eszenatoki ikusgarria. Luis Mari Elustondok zuzendu zuen ekainaren 29an egin zen batzar hau, eta bilerara, besteak beste, Gipuzkoako eta Arabako Federazioetako lehendakariak bertaratu ziren, hots, Juan Luis Larrea eta Pedro Solaun. Bizkaitik Jose Angel Labrador lehendakariordea bertaratu zen, federazioko beste hain-

ba kideekin batera.

Euskadiko federakundearen lehendakariak euskal futbolak bizi duen une bikaina azpimarratu zuen, izandako igoerengatik, eta bereziki, Euskadiko sub'18 eta sub'16 selekzioek lortutako Estatuko bi tituluengatik, aurrekaririk gabeko une gogoangarria izan baita.

Batzarra amaitutakoan, zeinetan denboraldi honetako kontuak eta hurrengoko aurrekontua zein irailetik ekainera garatzea aurreikusitako kirol-txapelketen plana onartu zen, Ibon Areso, Bilboko alkate ohia, omendu zen, futbolari eta Euskal Selektioari emandako babesagatik.



Kirol eta politika arloko buruzagiak, omendutako Ibon Aresorekin, Eneko Goia Donostiako alkatea eta Luis Mari Elustondo lehendakaria



Zale zuri-gorriek etengabe animatu zuten, baina Messiren kalitateak erabaki zuen partidua

MESSIK ATHLETICEN GABARRA ATERATZEKO AMETSA HAUTSI ZUEN, ERREGE KOPAREN FINALEAN

Zale zuri-gorrien inbasioa konde-hirira ez zen nahikoa izan Athleticcek Bartzelona, Messi buru zuena, menderatzeko.

Adolfo Marcos

Azken sei urteetako hirugarren kopa-finala jokatu zuen Athleticcek eta, berriz ere, FC Barcelona taldearen boterearen aurrean amore eman behar izan zuen, oraingo honetan, gainera, etxean jokatzeko.

zuelarik. Baina etxean jokatzeko abantailak eta gorri-urdinen sasoi-une bikainak ez zuten zale zuri-gorriak beldurtzea lortu, atzera ere andana joan baitziren (agintariek diote 70.000 lagun joan zirela) beren taldea babestera, berriro portaera bikaina izanik.

Josu Urrutia buru duen taldeak Athletic Hiria jartzearen aldeko apustua egin zuen berriz ere, oso harrera ona izan zuelako Valentzia eta Madrilgo finaletan, eta oraingo honetan aurreko biak gainditu zituzten antolatzaileek kantitateari eta kalitateari dago-kienez.

Athleticen barrutia izugarritzko festa izan zen, bertaratu ziren

TORINOK EUROPAR AUKERAREKIN AMAITU ZUEN

Txapeldunen Ligako taldeen fasean kanporatuak izan ostean, zuri-gorriek Europako Ligari atzeman zioten 2012.an egindako lan ona erre-pikatzeke asmoarekin, orduan final handiraino heldu baitziren miresmena sorrarazi zuten ekintzekin. Baina Torinok bilbotarrak kanporatu zituen, joanekoan 2-2 berdindu ondoren San Mamesen 2-3 irabazita.

Ligan zazpigarren amaitu zuten eta Europako Ligara itzuliko dira.

milaka zaleei gozarazi zieten asotariko jarduerekin.

ATHLETIC HIRIA

Fan-zone delakoan eta, ondoren, Nou Camp-eko harmailtan bizi izandako jaia ezin izan zen, tamalez, zelaira jaitxi, non Bartzelona berriz ere nagusitu baitzen lehoien aurrean.

Baikortasunera gonbidatzen zuen partidu-hasiera baten ostean, Messi bakarkako ekintza batean agertu, eta izugarritzko gol batekin bideratu zuen garaipena.

Atsedenaldiaren aurretik Neymarrek aldea areagotu eta ondoren, izar argentinarrek berriz ere hirugarren golarekin erabaki zuen.

Bilbotarrek, ordea, ez zuten amore eman eta emozio apur bat eman zioten amaieran Iñaki Williamsen burukada bati esker.

Valverdearen mutilen erreakzioak ez zuten emaitzarik izan eta azkenean Bartzelonan geratu zen Kopa. Orain, errebantxarako beste aukera bat izango du Athleticcek, uztailean, Superkoparekin, 15/16ko denboraldiko lehen tituluarekin.

ELXEREN ZORREK LEHEN MAILAN MANTENDUKO DUTE SD EIBAR

Elxeko taldearen jaitziera administratiboak, SD Eibarrek aurten berri ere Lehen Mailari eustea ahalbidetu du, taulan 18. amaitu ostean.

Adolfo Marcos

SD Eibar irribarretsu dago berriro ere, oso Liga amaiera latza bizi ondoren, une askotan eutsiko ziola bizi izan baitzuen. Baina, Deportivo de la Coruñaaren ezusteko erreakzioak, Nou Camp-en 2-0 galtzen joan ondoren, armaginak Bigarren Mailara eraman zituen. Oraindik samina gorputzean, Elxeko taldearen zitekeen jaitziera administratiboaren albistea heldu zen, Ogasunarekin, futbolariekin eta klubeko gainerako langileekin pilatutako zorren-



SD Eibar goitik behera joan zen

gatik.

Ligako Gizarte Diziplinako Epaileak berri berretsi eta epai horrek Estatuko eliteko futbolera itzuli zituen armaginak, Alex Aranzabal lehendakariak baieztatu zuen legez.

“Bartzelonan martxoaren 25ean egin genuen bilera batean erabaki genuen, jaitziera ad-

ZORTZI PUNTU BAINO EZ BIGARREN ITZULIAN

Lehen itzuli ikusgarri baten ostean, zeinetan SD Eibar taldeak Euskadiko neguko txapelkunaren oho-rezko tituluarekin amaitu baitzuen, armaginak behera etorri dira txapelketaren bigarren itzuli etsigarrian, Anoetan galtzen hasi eta hortik aurrera 7 porrot jarraitu lotu ostean. 19 partidu horien balantzea garaipen bakar bira (etxean Malagaren eta Cordobaren aurka) eta bi berdinketara (etxetik kanpo Granada eta Getaferen kontra) mugatzen da.

ministratiboren bat izatekotan, jaitzitateko talderik onena hartuko zuela leku hori”, eta pozik azaldu zen arauak bete izanagatik.

“Lezio bat eman da futbolen. Kontua ez da Eibarrek Lehen Mailan jokatzeko, futboleko gauzak aldatzen ari direlako ausardia egotea baizik”.

Barceló Bilbao Nervión



Un hotel totalmente renovado, con el servicio y saber hacer de siempre.

- Habitaciones increíblemente cómodas y sorprendentes.
- Salones privados para reuniones y charlas técnicas.
- Menús adaptados a las necesidades de los equipos.

Hotel eco-urbano en el centro de Bilbao



Paseo Campo de Volantín, 11
T. 944 454 700
bilbaonervion.ayb@barcelo.com
barcelobilbaonervion.com

Barcelo.COM

REALAK DAVID MOYESEN ARO BERRIRAKO OINARRIAK EZARRI DITU

Teknikari eskoziarrak 12. jardunaldian ekin zion donostiarrak zuzentzeari, eta 9 garaipen, 10 berdinketa eta 8 porrot eskuratu ditu.

Adolfo Marcos



Ongi amaitu zuen Realak

12. postuan amaitu du Realak, onena eta txarrena lortzeko gai izan den denboraldi bitxi batean. Izan ere, Ligako hiru boteretsuak garaitu ditu

etxean: Real Madrid, Bartzelona eta Atletico de Madrid, eta hiru entrenatzaile ezberdinekin egin du. Hala ere, etxetik kanpo lortutako garaipenak hain gutxi iza-

teak, 19 partidutik bi garaipen baino ez, elkarren segidako hirugarren denboraldiz Europarako sailkapenetik kanpo utzi du taldea.

Jagoba Arrasate kargutik kendu eta David Moyes heltzean, aro berria ireki da talde txuri-urdinean, lan egiteko metodo berri batekin eta, datorren denboraldira begira, taldean iraultza txiki bat ginez.

Hamabigarren jardunaldian estreinatu zen Moyes Realean, Deportiboren aurka berdinketa lortuz. Handik aurrera, gipuzkoarrak sailkapenean zeuden egoera larritik ateratzea lortu zuen, baina gauza handirik erakutsi gabe, ez jokoan, ez zenbakietan. Manchester United eta Everton taldeen entrenatzaile ohia aulkian izanda, litezkeen 81etik 37 puntu eskuratu ditu Realak ligan, 9 garaipen, 10 berdinketa eta 8 porrotekin.

Goco Tour



AUTOCARES

Bº Arregui
Polígono Cóndor
Edificio C
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (0034) 94 630 82 50
Fax: (0034) 94 630 85 10

E-mail: gocotour@gocotour.com

www.gocotour.com

- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de servicio en autobús
- Transporte: Escolar, Bodas, Congresos, Celebraciones, Etc.
- Vehículos de: 10, 18, 22, 27, 35, 50, 55, 59, 71 plazas
- Vehículos adaptados para P.M.R.
(Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado Taxi: Lujo y 24 horas

DEPORTIVO ALAVESEK 2.A MAILARI EUTSI ETA AMETS EGINARAZI DU

Liga ona egin du Deportivo Alavesek. Mailari lasai eusteko helburua amaitu aurreko hainbat jardunaldi lehenago lortu zen.

David Novo

Talde zuri-urdinak 2014/15 denboraldi ona itxi du. Helburua estutasunik ez bizitzea zen eta horrela amaitu du, hamahirugarren lekuan,



D. Alavesek jokaldi oneko bolada handiak izan zituen

jaitsieratik bederatzi puntura. Gasteiztarrak seigarren postua - igotzeko aukera jokatzeko esku-bidea ematen zuena- lortzen ere saiatu ziren azken jardunaldietan, baina zaila zen erronka. Giro bikaina bizi izan da Mendizorrotzan, partidu bizi eta zirrargarriekin.

Kopan, karguan jarraituko ez duen Alberto Lopezen mutilek Osasuna eta Mirandes kanporatu zituzten, baina final-hamaseirenetan Espanyolen aurka jausi ziren.

Jose Bordalas Jimenez da Deportivo Alavesen Administrazio Kontseiluak datorren denboraldian taldea zuzentzeko aukeratutako entrenatzailea.

Denboraldi baterako kontratua du, beste urtebetez jarraitzeko aukerarekin. Uztailaren 28an aurkeztuko da Alaves bere zaleen aurrean, Toulouseren aurka eta hitzartutako klubun alde jokatu duen partiduan.

REAL UNION, FEDERAZIO KOPAKO TXAPELDUN BERE MENDEURRENEKO URTEAN

Talde irundarrak, Kopako txapeldun lau aldiz izan ostean -lehenengoa Racing de Irun bezala- 'beste' Kopa irabazi du aurten, txikiena.

izan zen Castelloren aurka bi partiduak irabazi ostean (0-1 joanekoan eta 3-0 Stadium Galen). Aitor Zulaikaren gizonak Ourenseren atzetik doaz palmaresean, Hirugarren eta Bigarren B mailako klubentzat

izateagatik "Txikien Kopatzat" jotako fase nazionalako lau kanporaketa eta autonomikoko hiru irabazi ostean.

Real UnioneK Ligan laugarren amaitu, Bigarren A-ra igotzeko play off-ak jokatu eta honako hauek gainditu zituen Kopan hurrenkera honetan: RFEF de Balmaseda, Aurrera de Vitoria, Gernika, Amorebieta, Almu-devar, Atletico Baleares eta Linares.

Gipuzkoarrek, kategoria nazionalako sari ofiziala lortzeaz gain, 90.000 euroko saria poltsikoratu zuten.

David Novo

Real Union taldea, historikoa Estatuko futbolearen, aurten bere mendeurrena ospatu eta Kopako lau titulu irabazi dituena -lehenengoa Racing de Irun bezala-, Federazio Kopako txapeldun



Kapitain irundarra Kopa altxatzen



Cadizen lortu zuen igoera filialak



BILBAO ATHLETIC 2. MAILARA ITZULI DA BI HAMARKADAREN OSTEAN

Lehoikumeek Deportivo Alavesekin bat egingo dute Adelante Ligan, eta Zilarrezko kategorian dagoen filial bakarra izango da, 1996tik horretatik kanpo egon ondoren.

David Novo

Euskal futbola modan dago. Datorren denboraldian hiru talde izango ditu Euskadik Lehen Mailan eta bi Bigarrean, Bilbao Athletic Adelante Ligara igo izanari esker, azken lau urteetan Jose Angel 'Cuco' Zigandaren eskutik bi play off jokatu ostean.

Bigarren talde zuri-gorriak fase irregular bikaina egin zuen, eta lau minutura baino ez zen gelditu Huescan Liga irabazteko. Gainera, oso sinesgarri azaldu da Bigarren A mailarako igoeran, Villanovense (2-1 etxetik kanpo eta 2-0), UCAM Murcia (1-0 eta 2-0 etxean) eta Cadiz (2-0 San Mamesen eta 1-1) taldeei irabaziz. Horrela, Ibaiganekoa izango da datorren urtean Estatuko lehen bi futbol-kategoria profesionaletan ordezkari-tza izango duen erakunde bakarra, azken urteetan bakar-bakarrik Malaga, Real Madrid, Villarreal eta Bartzelona taldeek lortu dutelarik.

 Sport·designer


 grupo-campus

OFERTA LANZAMIENTO
19,50 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: www.sport-designer.com



PORTUGALETE, GERNIKA ETA ARENAS TALDEAK 2. B MAILARA IGO DIRA EUSKADIRENTZAT MAGIKOA IZAN DEN PLAY OFF BATEAN

Bizkaiak, 1.155.000 biztanlerekin, 7 talde 2. B mailan eta Euskadi kategorien top-3an jartzen du, Andaluzia (12) eta Kataluniaren (10) ondoren.

David Novo

Euskal taldeko txapelduna, Portugalete taldea, ezin izan zen lehen mailara igo Talavera de la Reinaren aurka (0-0 etxean eta 2-0) galdu ostean, baina Martos (0-3 etxetik kanpo eta 1-2) eta Cayon (0-0 eta 3-0 La Floridan) taldeen aurka arantza kendu zuten, hamarkada bat beranduago Brontzezko Mailara itzuliz. Gerni-

kak, bere aldetik, leinu eta federa jo zuen Mercadal (1-0 etxetik kanpo eta 3-1) eta Jerez de los Caballeros (2-0 eta 3-0 etxean) taldeen aurkako lehen bi kanporaketak gainditu, Osasuna Bren aurka (0-1 eta 1-1 Urbietan) errematatu eta 20 urteren ondoren kategoriaz igo eta ospatzeko. Play offean, bere historiaren mailara heldu zen Arenas batek osatu zuen bateko hirukotea. Zuri-beltzek 32 kanpaiaren ondoren utzi zuten Hirugarren Maila, igoreraren bidean Oviedo B (1-0 etxetik kanpo eta 2-0), Extremadura (0-0 etxean eta 1-4) eta SD Logroñes (0-1 eta 4-2 Gobelan) taldeak utzi eta gero. Cultural de Durango izan zen saririk gabe geratu zen bakarra, lehen kanporaketan Deportivo de La Coruña B taldearen aurka (2-1 Tabiran eta 2-0) galdu zuenean.

GETXO, ARETXABALETA ETA ELGORRIAGA HIRUGARREN MAILARA IGO DIRA

Getxo, Aretxabaleta eta Elgorriaga taldeak, hirurak eskualde-mailako kategoriarik goreneko Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako txapeldunordeak, Hirugarren Mailan jokatu dute datorren kanpainan Portugalete, Gernika eta Arenas taldeak Bigarren B Mailara igo direlako.

Hiru euskal lurraldeetan bigarren sailkatutako taldeen sustapenean, Getxo lehena gelditu zen Aretxabaletaren aurka kanpoan berdindu (1-1) eta Elorriagari Faduran irabazi (2-0) ostean. Bigarrena talde gipuzkoarra izan zen, talde arabarrari etxetik kanpo iragazi ondoren (0-1).

Azkenean, hiruek lortu zuten kategoriaz igotzeko saria euskal futbolarentzat historikoa izan den denboraldi amaieran.



Rivacoba Elustondoren eskutik txapeldun kopa jasotzen



Ospakizuna Portugaleten



Ospakizuna Gernikan



Arenas taldearen ospakizuna

C.D. VITORIA, S.D. DEUSTO ETA AURRERA DE ONDARROA TALDEAK, 3. A MAILARA

C.D. Vitoria, S.D. Deusto eta Aurrera de Ondarroa taldeak eskualde mailako dagozkien ligak irabazi dituztenez, datorren urtean Hirugarren Mailan jokatuko dute.

David Novo

C.D. Vitoria, gaur egun Arabako Preferenteko txapelduna, S.D. Deusto, lehen sailkatua Bizkaiko Ohorezko Mailan, eta Aurrera de Ondarroa, Gipuzkoako eskualde-mailako elitean irabazlea, taldeak estatu-mailarako jauzia egin eta Euskadiko Hirugarren Mailako taldean lehiatuko dira datorren kanpainan. Hiru hauek Erandio, Amurrio eta Oiartzun taldeek utzitako lekuak beteko dituzte, azken horiek jaitsi egin baitira denboraldi honetan.

Arabarrak Elgorriaga eta Iru-Bat taldeen aurkako lehia politaren protagonistak izan dira, lau eta zazpi puntuz irabazi baitiete, hurrenez hurren. Arabar hiriburuko taldea Hirugarren Mailara itzuliko da azken aldiz egon zenetik lau urte igaro ondoren. Deustuk, bere aldetik, hiru hamarkada baino gehiago behar izan ditu kategoria nazionalera itzultzeko. Tomateroek bigarren itzuli bikaina egin eta Bizkaia, Getxo eta Somorrostro lehiakideak gainditu zituzten txapelketan. Gipuzkoan, hain zuzen ere, talde bizkaitar batek eraman zuen saria, zirkunstantziengatik, ondoko lurraldean aritu delako aurtien arte. Aurrera de Ondarroa taldea buru izan da irmotasunez, atzetik bakarrik Aretxabaletan izan zuen txapelketa batean.



C.D. Vitoria, Arabako txapelduna



SD Deusto, Bizkaiko txapelduna



Aurrera de Ondarroa, Gipuzkoako txapelduna

EUSKADIKO GAZTE ETA KADETEEN BIKOTE HISTORIKOA BEREN KATEGORIETAKO ESTATALETAN

Gazte eta kadete mailako euskal taldeak bikain aritu ziren 2014-15 denboraldian eta txapeldun bukatu zuten.

Raúl A. Collantes

Euskadiko Sub-18 eta Sub-16 selekzioek modurik hobereanean amaitu zituzten Autonomietako Selekzioen Estatuko Txapelketan egindako ibilbide apartak. Gazte mailan zein kadeteetan, biak ere Iñaki Senaren koordinaziopean, hiru kolorekoentzat izan zen garaipena euskal futbolarentzat bikote historikoa lortuz.

Lortutako emaitzek erakusten dute, zalantzarik gabe, Euskadik kide onak dituela beheko kategorietan eta ondo lan egiten ari dela harrobiarekin. Nabarmen baino nabarmenagoak dira gazte zein kadeteetan lortutako emaitzak. Talde biek zegozkien fase final-etarako puntu guztiekin sailkatzea lortu zuten, 2014ko abenduan Leioan eta iragan otsailean Logroñon eskuratutako garaipenekin. Azken urratsak ematea falta zen.

Gazteen selekzioa izan zen ekinean jarri zen lehena. Kategoriaren Fase Finala Balearretan izan zen apirilaren 24tik 26ra eta Jonathan Ledesmanen mutilen lehen aurkaria finalerdietan anfitrioi izan zen, hain zuzen ere. Arauzko denbora amaitutakoan, 0-0koa zen markagailua. Penal-

tietara jo behar izan zuten Final handira zeinek pasatzen zuen argitzeko eta berdinketa hausteko txandan 5-4 nagusitu ziren euskaldunak.

Apirilaren 26an Madrilan aurka jokatu zen Finala eta emaitza 0-3koa izan zen Euskadiren alde. Bi gol azken uneetan heldu baziren ere, euskal taldeak nahiko eroso kontrolatu zuen partidua eta zilegitasunez eskuratu zuen garaipena. Bigarren titulua da Sub-18 kategorian, 2011n lortutakoaren ondoren.

KADETEEN GARAIPENA

Hurrengo txanda kadeteentzat



Euskal jokalarien poza

izan zen, hilabete beranduago. Sub-16 selekzioa Sevillako Alcalá de Guadaíra joan zen, kategoriako Fase Finala jokatzera. Lehenengo partidua Asturiasen auka izan zen, zein talde pasatzen zen Finalera jakiteko, eta Jose

SELEKZIONATZAILEEK “EUSKAL FEDERAZIOAREN ARRAKASTA” IZENDATZEN DUTENA BALORATZEN DUTE

Selekzio bien teknikariek jokalariek denboraldian zehar egindako lan bikaina nabarmentzen dute. “Arrakasta handia da, ez bairik gabe, Euskadiko Futbol Federakundearentzat. Oso zaila izango da horrelako zerbait berri ere errepikatzea, hau da, selekzio biak finalerara heldu eta irabaztea” dio Jose Luis Txakartegik, kadeteen teknikariak. Gazteen entrenatzailea den Jonathan Ledesma, bere aldetik, zera adierazi du “balantzea ezin da hobea izan” eta “jokalarien, teknikarien eta zuzendaritzako kideen giro bikaina” baloratu du.



13 #GAZTEAK ETA KADETEAK



Luis Txakartegiren futbolariak 5-0 biribila lortu zuten beren alde.

Kadeteak Finalean zeuden, eta horretara sailkatu zen anfitrioiare, hots, Andaluzia. Partidu erabakigarria maiatzaren 24an, igandea, jokatu zen eta luzapenera jo

behar izan zen txapelduna zein zen jakiteko.

Euskadi bitan aurreratu zen markagailuan eta bitan berdindu zuten etxekoek, bigarrenen partiduaren amaieran heldu zela, eta horrek denbora gehiago jokatzea

eskatu zuen. Luzapena hasi eta bost minutura behin betiko emaitza, 3-2koa, heldu zen. Titulua Jose Luis Txakartegirentzat izan zen eta kadeteek gazteen egitandia errepikatu zuten, txapela bereganatuz.

BI TITULUAK BISITARI GISA LORTUAK

Bi euskal selekzio txapeldunek garrantzia gehitu zioten tituluei etxetik kanpo lortu zituztelako. “Gazteen azken titulua Gasteizen lortu zen” gogoratzen du Jonathan Ledesmak, bere jokalaria finalerdietan Balearretako anfitrioiaren aurka neurtu zirelarik.

Kadeteak beren kategorian ere, gutxiago ez izateko, talde anfitrioiaren aurka neurtu ziren. Andaluzia Finaleko aurkaria izan zen.



GAZTE MAILAKO DANOK BAT ETA KADETE MAILAKO ROMO, 2015EKO EUSKAL KOPAKO TXAPELDUNAK

ERREGE KOPA

Celta de Vigo taldea Athletic eta Realaren taldeen urkatzailea izan zen gazteen mailako Errege Kopan.

Bizkaiko taldeak izan dira 2014-15 kanpainako kopa-txapelketetan saiatuenak. Gazte zein kadete mailan finaleko postuak 'bete' zituzten.

Raúl A. Collantes

Danok Bat, gazteen kategorian, eta Romo taldea, kadeteetan, izan ziren Euskadiko Futbol Federazioak antolatutako Kopa txapelketetan garaile, ligak amaitu ostean. Katgoria bietan, bizkaitarren taldeen lana nabarmen baino nabarmenagoa izan zen, finalen txandak ia monopolizatu arte.

Gazteen mailan, lau finalerdikoak bizkaitarrak izan ziren, eta Final handira Danok Bat eta Barakaldo heldu ziren. Ekainaren 20an, Barakaldoko La Sieben, jokatu zen partidua erabaki zuen titulua. Talde bilbotarrak 1-3 garaitu zuen, nagusi izan ziren partiduen amaieran eta saria eraman zuten denboraldia ixteko.

Kadeteen Kopan, Arabako Olarizu taldeak baino ez zuen lekua hartu finalerdietan, Getxo, Santutxu eta Romo taldeekin batera. Santutxuk Getxo garaitu zuen Finalera heltzeko eta Romo taldeak gauza bera egin zuen Olarizurekin. Maionan jokatu zen ekainaren 6an, txapelketa erabakiko zuen partidua eta, gazteen mailan bezala, zelaiaren faktorea ez zen erabakigarria izan. Romo taldeak Santutxu anfitrioiaren aurka gailendu zen 1-2, bere kanpaina handiari amaiera bikaina emateko.



Gazte mailako Danok Bat, Euskal Kopako txapeldun



Kadete mailako Romo, Euskal Kopako txapeldun

REALAK GAZTE MAILAKO OHOREZKO LIGA IRABAZI DU

Realak txapeldun izan zen gazte kategoriako mailarik gorenean. Donostiarrek iaz lortutako titulua eskuratu dute berriz ere eta beren gazteekin lan bikaina egiten ari direla erakutsi dute. Gazteek lortutako txapelketari, kadeteek Euskal Ligan lortutakoa gehitu behar zaio. Gazte mailako Liga Nazionalen Gasteizko Aurrera izan zen txapeldun eta Ohorezkora igo da. Gazteen Euskal Ligan, berriz, Santutxu B izan da erregularrena.

EUSKADIKO KIMU MAILAKO NESKEK ETA MUTILEK AURPEGIA EMAN DUTE

Euskadi lanean ari da, dagoeneko, aurten gazteek eta kadeteek egindako bideari jarraituzera deitutakoekin. Kimuen taldeak lehiatzen ikasten ari dira.

Raúl A. Collantes

Sub-12 selekzioak ez zuen zorterik izan Mallorcan izandako Estatuko txapelketan. Kimuek jokatutako lau partidutik bat berdindu zuten. Nesken txapelketan, ordea, Juan Jose Arreguiaren selekzioa Ruidomsen (Tarragona) jokatutako txapelketan ondo aritu arren, taldeen fasetik kanpo geratu zen. Hasiera etorkizun oparokoa izan zen Nafarroari (2-0) eta, ondoren, Galiziarri (2-1) irabazita. Baina Asturiasek gureak gailendu (0-1) eta Madrilerekin ere irabazi egin zituen (1-3).



Euskadiko kimuen mailako mutilak



Euskadiko kimuen mailako neskak



ASTORE

NUEVA EQUIPACIÓN
EUSKAL SELEKZIOA



EUSKADI GARAITU GABEA COCA COLA KOPAREN AZKEN FASEAN, GIJONEN

Euskaldunen presentzia nabarmena, ekainean Gijongo Mareo Futbol Eskolaren instalazioetan izan zen 2015eko Coca Cola Kopako Azken Fasean.

Raúl A. Collantes

Kadeteen Euskadiko Selekzioa eta Athletic Coca Cola Kopako Azken Fasean izan ziren. Hiru kolorekoak ez zuen lortu selekzioen



Euskadiko kadeteen selekzioa

Finalera pasatzea, baina oso gertu egon zen.

Andaluzia 0-0 eta Murziarekin 1-1 berdindu zuen.

BESTE FINALISTA

Athletic ere, Euskadiko fasean txapel-dun, Gijonen izan zen, baina ez zen finalera iritsi.

AEXA
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado
y repasado
de ropa deportiva
Desde 1970**

Ibéricos deluxé

Delicatessen

ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com



AYESTARAN

DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919



**JOYERÍA AYESTARAN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

EMAKUMEEN EUSKAL SELEKZIOAK GOL UGARI EGIN ZIZKION ESTONIARI NAZIOARTEKO LAGUNARTEKO PARTIDUAN



Euskal selekzioak europar taldearen aurka jokatu zuen denboraldiko bigarren lagunartekoan, abenduan Kataluniaren aurka jokatu ondoren.

kek Tallinen. Partidua A Lecoc Arena estadioan jokatu zen. Hiru kolorekoak egun FIFArekin rankingean 77. postuan dagoen lehiakidearen aurka jokatu zuen. Eunate Arraizak bideratu zuen garaipena partiduen lehen sei

minutuetan bi gol sartuta eta Nekane Diezek 0-3a egin zuen 11.ean. Atsedendaldia aurretik, Aintzane Encinasek 0-4koa sartu zuen eta bigarren denboran 0-5arekin errepikatu zuen. Estoniak bisita itzuliko du.

Txemi García

Euskal Selekzioak lagunarteko bigarren partidua jokatu zuen maiztean Estoniaren aurka, Lasesarren Kataluniaren aurka bana amaitu ondoren. Oraingo honetan markagailua irmoz (0-5) menderatu zuten Jose Alvarezaren nes-



Euskal selekzioa Estonian



ATHLETICEK ETA REALAK AURPEGIA EMAN DUTE

Urte zaila Athletic eta Realarentzat Lehen Mailan. Zuri-gorriek onenak bezala borrokatu zuten, baina ez zioten Barça txapelkunaren erritmoari eutsi. Hirugarrenak izan ziren eta Erreginaren Kopa jokatu zuten, baina Valentziak final-laurdenetan kanporatu zituen. Txuri-urdinak, berriz, mailari eusteko sufritu zuten.

OIARTZUN TXAPELDUN DA ETA IGO EGINGO DA, ETA ABANTO, DESAGERTU

Oiertzun Ligako txapelkuna izan zen. Play offean izenpetu zuen bere denboraldi handia Lehen Mailara igotzea lortuz. Madril kanporatu zuen lehen txandan eta gero El Olivo garaitu zuen. Zilarrezko kategorian maila erakutsi zuten gure taldeek, baina Liga amaitu eta Abanto desagertuko zelako berri txarra heldu zen. Horrek Leioako taldearen litekeen igoera ahalbidetzen du.

AURRERA B, UGAO ETA AÑORGA B ESQUALDE MAILAKO TXAPELDUNAK DIRA

Aurrera Vitoria eta Añorgaren filialek eta Ugao taldeak eskualde-mailan onenak izatea lortu zuten. Gasteiztarrek bi puntugatik garaitu zuten Agurain, 17 garaipen, berdinketa 1 eta 2 porrotekin. Gipuzkoarrek Arimendi taldea baino bost puntu gehiago lortu zituzten eta gaintitu gabe amaitu zuten 14 garaipen eta 4 berdinketarekin. Eta Ugaok 11 puntu atera zizkion Elorriori, galdu gabe eta 15 garaipen eta berdinketa batekin.

ERIKA, IRENE, AINHOA ETA ELI, ATHLETICEKO LAU MUNDIALISTA KANADAN

Erika Vázquez, Irene Paredes, Ainhoa Tirapu eta Eli Ibarra dira Mundialeko lehoi-emeak. Eurekin Barçako Leire Landa irundarra egon zen.

Txemi García

Spainiar selekzioak Munduko Txapelketa batean jokaturako lehen aldi historikoan, Athleticeko lau jokalarik esku hartu zuten: Erika



Lau lehoi mundialistak

**ANE BERGARA,
AURRE-SELEKZIOAN**

Mundialerako Aurre-selekziona-tu zuen Ane Bergara, Realeko jokalaria, Nacho Quereda teknikariak, baina azkenean zerrendatik kanpo geratu zen finalista.

Vázquez, Irene Paredes, Ainhoa Tirapu eta Eli Ibarra. Horiekin batera Leire Landa, orain Bartzelonaren taldean jokatzen duen jokalaria irundarra, egon zen. Espainia txapelketako lehen fasean erori zen Costa Rica, Brasil eta Hego Korearen aurka. Lehenengo partiduan costarricarren aurka berdindu zuten (1-1), baina gero brasildarren (1-0) eta asiarren kontra (2-1) galdu egin zuten.

SD EIBAR EUSKAL LIGAKO TXAPELDUNA ETA ATHLETIC B KOPAKOA

Eibarrek Bigarren Mailara igotzea lortu zuen talderik erregularrena izan ondoren, eta Athletic B, berriz, Añorga menderatu zuen Euskal Kopako Finalean.

Txemi García

SD Eibar eta Athletic Club B taldeek euskal txapelketako tituluak bereganatu zituzten.

SD Eibar Euskal Ligako txapelkun izatera heldu zen Leioako taldearen aurkako final liluragarrian. Bi taldeen



SD Eibar



Athletic Club B

arteko norgehiagoka berdinduta heldu zen puntutan azkenaurreko jardunaldira arte. Lehen itzuliko Unbeko berdinketaren ostean, partidu erabakigarria Sarriengan jokatu zen, emozio eta bizitasun handiz bizi izan zen benetako Final batean. Garaipenak titulua eta Bigarren Mailarako igoera ematen zizkion irabazle-ari eta armaginak sendoago egon eta Nereak bere atean sartutako gol batekin eta Irati Lazkano aurrelariaren beste batekin garaitu zuten (0-2).

KOaren txapelketan, Añorgak bere izaera lehiakorra erakutsi eta berriro heldu zen Finalera. Aurreko denboraldian Pauldarrak taldea izan zen Rezolarenei trofeoa kendu ziena eta oraingo honetan Athletic B gosedun batekin egin zuen topo, Ligako Oartzunen aurka ihes egin baitzion. Kumeek aurkariaren zelaian jokatu zuten, baina ez ziren kikildu eta irabazteko beren kalitatea erakutsi zuten (0-2). Paula Mañoso izan zen protagonista, 40 minutuan markagailua ireki eta 52.ean bigarren gola egin zuenean.

BILBOK ETA ORDIZIAK EZ ZUTEN LORTU, BEREN ESTREINALDIAN, EMAKUMEZKOEN ESTATUKO ELITEARI EUSTEA

Bi ordezkari euskaldunek beren lehen aldia izatea eta kategoria zorrotz batean esperientzia falta igarri, eta taularen beheko aldean egon ziren beti.

Iker García

Ezinezkoa izan zen. Aurreko denboraldian Lehen Mailara igo ziren bi euskal taldeetako -Bilbo eta Ordizia- batek ere ez zuen lortu kategoriari eustea estatuko areto-futboleko elitean hasitako lehen urtean. Beti azken postuetan egon arren, bi euskal taldeek amore



Euskal derbyaren irudi bat

eman ez eta azken jardunaldira arte borrokatu zuten kategoriari eusteko.

Talde bilbotarrak elkarren segidako lau berdinketarekin ekin zioten denboraldiari, baina 12 jardunaldietan jasandako 11 porrotek -tartean garaipen batekin-, inoiz

utzi ez zuen azken postura kondenatu zuten. Zazpi puntu jarraituk txapelketaren azken herenean amets egitea ahalbidetu zieten, baina zaila zen igoera, maniobratzeko marjina urria zen, eta estropezu berriekin jaitsiera heldu zen 3 jardunaldi falta zirenean.

Talde gipuzkoarra, bere aldetik, bere zelaian irabazten hasi zen eta bertan eskuratu ditu punturik gehienak, baina lehen jardunaldietatik eremu arriskutsuan egon da Ordizia, beste 5 talderekin batera, ez jaisteko borrokatzen. Gipuzkoarrek golik eza igarri dute, 9 partidutan ez dutelako golik egin.

Talde biek berdindu egin zuten euren arteko zuzeneko norgehiagoketan (0-0 Gipuzkoan eta 2-2 Bilbon).

STILO, BIGARREN MAILAN

Bigarren Mailan, euskal ordezkari bakarrak, Stilo Berrio taldeak, mailari arazorik gabe eustea lortu zuen. Santutxukoek zortzigarren lekuan amaitu zuten, azken bi postuetatik nahiko alde handira, eta kategoria berean jarraituko dute datorren urtean berri ere.



ZIERBENAK KOPA JOKATUKO DU

Bigarren B mailan, Zierbenak bigarren amaitu zuen, eta horrek datorren urtean Kopa jokatzea ahalbidetuko dio; Concepto taldea, berriz, hirugarren postutik puntu batera eta jokatu gabe geratu da. Santurtzi, liderra izatera heldu zela, Ibarra, Aurrera de Vitoria eta Atenea taldeek kategoriari eustea lortu zuten, arabarrek amaierara arte disfrutu bazuten ere.

LASKORAIN, HIRUGARREN MAILAN TXAPELDUN; SOLOARTE, EUSKAL LIGAN, ETA IBARRA, GAZTE MAILAN

Laskorain talde gipuzkoarra Hirugarren Mailako egiazko talde menderatzailea izan da. Lehen itzuliaren ostean, zeinetan Sasikoarekin norgehiagokan egon zen, durangarren estropezuek gainerako aurkariekin hutsunea egitea ahalbidetuko zieten, Liga Goierri baino 7 puntu gehiagorekin amaitu arte. Bigarren B Mailara igotzeko promozioan, gipuzkoarrak Villa de Murillo talde errioxarraren aurka galdu zuten. Euskal Ligan, bestalde, Soloarterentzat izan zen titulua, bere aurkariekin alde lortzea ahalbidetu zion Uxoaren aurkako norgehiagoka bizi baten ostean. Hirugarren mailara basauritarrak, Bilkoin eta Presio Break (talde laudiotarrak uko egin ondoren) igoko dira. Ohorezko Gazte maila berrian, Lehen Mailako taldeen ordezkariarekin, Ibarrentzat izan zen titulua.

EMAKUMEEN BILBO B, GAZTE MAILAKO ERASO ETA KADETEEN BERRIO, EUSKADIKO TXAPELDUNAK

Gazte mailako titulua talde aiararraren alde erabaki zen egindako gol kopuruagatik, Tolosala eta Bilbo taldeek ere beren partidua irabazi ondoren.

Iker García



Gazte mailako Eraso, txapeldun

Talde bilbotarraren emakumezkoen filialak Euskal Kopa bereganatu zuen Idiazabal 2-1 menderatu ondoren, bilbotarren aurkako

norgehiagokan aurretik joan zirelarik. Kadeteetan, berriz, Berrio taldea irimotasunez garaitu zuen Laskorain, 9-1eko markagailuarekin. Gazte mailari dago-


kionez, zeinetan Eraso, Tolosala eta Bilbo neurtu ziren, partidua batean garaitu eta titulua egindako golengatik erabaki behar izan zen.

**BIZKAIK IRABAZI DU
EMAKUMEEN
KATEGORIAN, ETA
GIPUZKOAK OINARRIAN**

Ekainaren 13an eskualdeko selekzioen Euskal Kopa jokatu zen Landako kiroldegian (Durango). Gazte mailan triangeluarra egon zen, eta Gipuzkoa garaitu zen Araba eta Bizkaia-aren aurkako bere bi partiduetan. Gazte mailan, aldiz, penaltietan erabaki zen, bina berdindu ostean, eta emakumezkoen artean Bizkaiak 4-0 irabazi zion Gipuzkoari.

HGEB

HOTEL GRAN BILBAO



Bodas Comuniones Bautizos Cumpleaños
Celebraciones deportivas Empresas

Síguenos y disfruta de extraordinarios descuentos en tu red social



HOTEL GRAN BILBAO Indalecio Prieto, 1 (esquina Miraflores) 48004 Bilbao
Tel. 94 432 85 75 hotel@hotelgranbilbao.com www.hotelgranbilbao.com

Sercotel
hotels



KIROL TARTEKARITZARAKO EUSKAL AUZITEGIA TRIBUNAL VASCO DE ARBITRAJE DEPORTIVO



EUSKADIKO KIROL ARBITRAJEAREN AUZITEGIARENAK

*Edonork ezagutzen du TAS,
Kirol Arbitrajearen
Auzitegia edo Kirolaren
Auzitegi Arbitrala, baina
hau ez omen da unibertso
bakarra.*

Lankidetzatza

Gutxienez bi unibertso daude indarrean, horrez gainera: Bigarrena litzateke TEAD (Espainiako Kirol Arbitrajearen Auzitegia), eta hau Espainiako federaziotako hala nola organo honekin euren borondatez atxikitzen diren bestelakoetak gatazkak ebazteaz arduratzen da.

Eta hirugarrena berriz, TVAD (Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegia); honen eraginpea aurkitzen gara Euskadiko futbol kirol federazio guztiak.

Eremu honetan, hau da, klub,

kirol elkarte, kirol federazio eta kirolari ezberdinen hala nola esparru honekin loturiko pertsonen eta/edo erakundearen ingurunean jardunean ari diren agenteen artetik eta euren arteko harremanetik eratorri gatazka sortzen denean, organo honen aurrean ebazten den prozedura lagungarria izan ahal da.

Beraz, esan genezake TVAD “TAS euskalduna” bezala dela.

Zeintzuk dira TVAD erakundearen zerbitzuetara jotzearen abantailak?

Prozedura honen berezitasuna alderdiekiko bere HURBILTASUNA izango litzateke. Kirol praktikaren eta hau arautzeko berezitasunen inguruan adituak diren arbitroak ari izaten dira jardunean.

Halaber azpimarragarria da Arbitroen HURBILTASUNA; Hauek Euskadin bizi dira eta federazioen, klubaren eta kirolariaren hala nola honekin loturiko guztiaren

inguruan adituak dira.

Ohiko jurisdikzioarekin alderatzen badugu, prozedura hau nabarmenki MERKEGOA da.

Ohiko jurisdikzioaren kasuan ez bezala, ebazpenen PRIBATUTASUNA agerikoa da. Ohituta gaude ikusten ohiko jurisdikzioaren epaiaren emaitza epaia eman aurretik iragazten dela. Kasu honetan, ebazpenak pribatuak dira.

Era berean, ebazpen horiek, oro har, 6 hilabeteko epea baino lehenago eman izaten dira, aldi ohiko jurisdikzioan urtetan luza litezke. Beraz, prozeduraren AZKARTASUNA eta ARINTASUNA azpimarratzekoak dira.

Zer egiten ari gara Batzorde Betearazletik?

Klubaren, kirol elkarten eta kirolariaren beharrak aurreikusten ari gara. Bestalde, eratzten ari gara TEAD erakundearekin batera, Bitartekotza Kode bat, datorren urrian argitaratu eta kirolariaren, klubaren zein federazioaren aurrean aurkeztuko dena.

Zertarako balio du Bitartekotza Kode honek?

Eztabaidak arbitro edo epaile batek ebatzi ditzan eragozteko, hau da, alderdien artean ebatzi daitezkeen bultzatzeko, bien arteko bitartekotza egingo duen norbaiten laguntzarekin.



Practica el
Vacacioning
de NAUTALIA



*Practica desconecting,
playing o disfruting...*

RESERVA
desde solo
50 €*
por persona

MEJOR
PRECIO
garantizado

FINANCIACIÓN**
en **10**
MESES

HASTA
14%
un
DE DESCUENTO

Consultar condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras Oficinas. * Depósito no reembolsable.

**Financiación: consulta condiciones de financiación ofrecida, sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance. S.A.



200 oficinas
902 811 811
nautaliaviajes.com

C.I.C.M.A. 2448Mm



NAUTALIA
Conecta con tu mundo

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Av. Gasteiz, 34. Tel.: 945 10 47 74 | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. Tel.: 945 10 30 97 |
BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 82 (Metro: San Mamés/Indautxu). Tel.: 946 42 43 48 | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). Tel.: 946 40 40 28 |
Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). Tel.: 946 41 45 08 | Deusto | Luis Power, 28. Tel.: 946 43 80 03 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. Tel.: 946 41 64 05 |
Las Arenas-Getxo | Mayor, 4. Tel.: 946 42 46 82 | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbietta, 47. Tel.: 943 10 49 24 | Eibar | San Agustín, 5. Tel.: 943 10 89 60 |
Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). Tel.: 943 10 43 42 | Rentería | Av. Navarra, 63. Tel.: 943 10 43 44 | Urretxu | Labeaga, 41. Tel.: 943 10 98 78 |

Kutxabank.

Hipoteketan

1.a

Euskadin liderrak gara hipoteketan. Etxe bat erostekotan bazabiltza, galdetu geuri eta gehien komeni zaizun hipoteka emango dizugu. Eta gainera, erosteko tramite guztiekin lagunduko dizugu.



Adibidea: 28 urteko bezeroa; 100.000 euroko mailegua; 30 urteko epea (tasazioaren zenbatekoaren gaineko %75a). Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. Euriborraren balioa (BOE: 2014ko azaroa): %0,335. (*) Eskaintza honetarako hurrengo baldintzak bete behar dira: hilero 3.000 eurotik gorako nomina sartzea; dendetan Kutxabank txartelekkin egindako kontsumoa urteko 4.800 eurotik gorakoa izatea; Baskepensiones BGAErako edo Kutxabank Pentsio Planerako ekarpena urteko 2.000 eurotik gorakoa izatea; etxebizitza-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea (horretan edukitzailearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukiaren kapitala 24.514,80 eurokoa);

maileguaren hasierako nominalaren pareko gutxieneko kapitala duen bizi-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea. Adibide honetan UTB Aldakorra kalkulatzeko legeriaren arabera hasieran sortutako gastuak 1.676,56 euro dira, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo eskualdaketan ohiko etxebizitza erosteko denean. Irekitze-komisioa: %0,25 eta gutxienekoa 400 €. Etxebizitza-asegurua baldintzak: 61.287 €ko edukitzailearen kapitalarekin eta 24.514,80 €ko edukiaren kapitalarekin 225,53 euroko prima. Bizi Asegurua: 100.000 €ko zenbatekoarekin, urteko prima 155,30 eurokoa. Tasazioa: 258,94 €. Erregistroko ordainsaria: 364,54 €. Gestoria: 272,25 €. Euskal Autonomia Erkidegoko zergak: 0 €, kontratua

sinatzean bezeroak ordaindu beharrekoak. Etxebizitza Asegurua Kutxabank Aseguradora SAU sozietatearekin eta Bizi Asegurua Kutxabank Vida y Pensiones SAU sozietatearekin kontratatu behar dira. Horietan Kutxabank SA Banka-Aseguruetako operadorea bitartekaria da. Kutxabank SAK mailegua onartu behar du. Eskatutako baldintzak bete ezean, etxebizitzarako derrigorrezko aseguruia izan ezik, Euriborraren gaineko diferentzialak %1ean handituko dira UTB Aldakorra (%2,84). UTB Aldakor hau erreferentzia indizeak aldatu gabe egonez gero kalkulatu da; beraz, UTB Aldakorra interes-tasak berrikusi ahala aldatuko da. Urtean behin berrikusiko da.